


## Asier Blas hernaniarrak Europa Ekialdeari buruzko liburua idatzi du, 'Atzoko eta gaurko harresiak'

■ Europa Ekialdera egin zuen bidaiari aitzaki hartuta, Blasek hainbat gai jorratzen ditu: komunismo garaiko eta oraingo egoera politikoa eta soziala, nazio berriak, Balkanetako arazoa, ijitoen problematika eta abar.

ASIER Blas hernaniarrak *Atzoko eta gaurko harresiak* liburua aurkeztu zuen atzo Bilintxen. Berez bidaiari liburu bat da, Blasek Europa Ekialdean barrena 1999an, Berlingo harresia erori eta 10 urtera, egin zuen bidaiari oinarritzen da kontakizuna. Berak aurkezpenean esan bezala, ordea, bidaiari aitzakia da politikaz eta gizarteaz gogoeta egiteko. Urteetan "ezkerraren eredu izan den lurralde horretara jo dut, zer izan den eta gaur egunean zertan den jakiteko": egoera politikoa, soziala, langile mugimenduak, nazio berrien sorrera, hizkuntza gutxituen bilakaera, Balkanetako konfliktuari buruz esan ez diren egiak, ijitoen egoera Europan eta abar luzea. "Utopiaz mintzo da liburu hau: mundua aldatu nahi zuten komunisten utopiaz; hauen buruzagiek sortutako utopia *errealaz*; estalinistek aurre egin zieten utopiaz; eta estatuek baztertutako nazio eta hizkuntza gutxituen utopiaz".



Asier Blas *Atzoko eta gaurko harresiak* liburuarekin, atzo Bilintxen egindako aurkezpenean.

**Bibliografia eta testigantzak**  
Asier Blas Politika eta Administrazio zientzian lizentziatua da eta dokortua egiten ari da. Alde horretatik kezka politikoa eta sozialen emaitza ere bada liburuak. Bidaiari egiterako Europa Ekialdeari buruzko bibliografia lan sakona egin zuen hernaniarrak eta lekuan lekuko jendearen testigantzak ere bildu ditu bere gogoetarako. Bere burua ezkerreko eta abertzale jotzen du eta bere lana "oso pertsonala" dela aitortu du Blasek.

Txalaparta argitaletxeak atara du liburuak eta azpimarratu du Euskal Herriko gazte baten ikuspegitik egin dagoela. □

### "Ekialdean langileen kontrako diktadura egon da, baina, bazegoen ezker antiautoritarioa ere"

MUNDUKO leku askotan ezkerren eredu izan denaren jatorria jotzeko grinak mugitu du Europa Ekialdean Asier Blas hernaniarra. Bere konklusioa da Europa Ekialdean "diktadura urteak izan dituztela, langileen kontrako diktadura urteak." Baina, Blasek berak dio liburuak utopiaz mintzo dela. Alde horretatik, Poloni-

ako langileen mugimendua aztertuta, Pragako Udaberri gertatu zena ikusita eta beste zenbait prozesu ikertuta, egileak dio Europa Ekialdean bazegoela beste-lako ezkerre ere, "ezker antiautoritarioa" zena.

Ezkerren eredu izan den lurralde horretan beste fenomeno bat ere aztertzen du Asier Blasek, berak

garrantzi handia ematen diona liburuan: estaturik gabeko herrien auzia, nazio berrien sorrera, hizkuntza gutxituen egoera eta bilakaera eta guzti horretan jartzen diren harresiak, besteak beste. Alde horretatik Blasek aipatzen du Hungaria eta Errumania Europan sartzearekin Ijitoak izango direla estaturik gabeko etnia haundiena.

### BERTSOLATA

#### Txapelketa azkarra gaur tabernetan

BERTSOLATAREN barruan, txapelketa azkarra jokatu da gaur tabernetan. 15 bertsolari aterako dira. Hauek bi taldetan banatu eta kanporaketak saio motzetan jokatu dira Kale Nagusian eta Kardaberazeko tabernetan. Kale Nagusiko taldeak, Riojan, Kixkalen eta Oindin kantatuko du (orden horretan). Kardaberazekoak, Bodega/Iruntxi, Txili eta Deportibon. Finala, Aralarren jokatu da. Txapelketa 19:00etan zen hastekoa baina, ordu erdi aurreratu eta 18:30etan hasiko da, eta 20:00etan bukatu. □

#### Lur korta ipui kontari gaur liburutegian

LUR Korta ipui kontalaria izango da gaur liburutegian. Goizeko 11:00etan 3-4 urteko haurrentzat arituko da eta 11:30etan 5-7 urteko haurrentzat. □

### ERREGAK

#### Ume eta gaztetxoei deia, gaur Biterin

ERREGA Kabalgatan paje gisa atara nahi duten ume eta gazte guztiak gaur Biterira joateko deia egin die Kabalgatako antolakuntzak, jantziak jasotzera. Deialdia arratsaldeko 20:00etarako egin dute. □

#### Elur Txori elkartearen mus partidak

ELUR Txoriko mus txapelketa aurrera doa eta gaur honako partidak hauek jokatu dira: Julio-Txatxon/Burugain-Otegi; Mellado-Joseba/Kijera-Xabier; Niko-Guardado/Diego-Iñaki eta Ramon-Peli/Pavon-Loran. Bihar repeskako partidak izango dira. □

**GasHernani**  
Zure etxerako energia naturala  
GAS NATURALA  
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Gudarien enparantza 14 - Tfnoa: 943 33 09 28 - 20.120 HERNANI

**Inaki Alkorta**  
barne diseinua

opariak, konplementuak...

Kardaberaz 39 - www.inakialkorta.com - 943 335431



Kantuz abesbatza Milagrosan emandako kontzertu batean. Aurten, andoiandarrak gonbidatu.

## Hernaniko Kantuz eta Andoaingo Alberto Agirre koruek Eliz Musika kontzertua emango dute

HERNANIKO Kantuz eta Andoaingo Alberto Agirre abesbatzek Eliz Musika kontzertua emango dute gaur Milagrosan. Kantuzek antolatzen du emaldia eta aurten Andoaingo korua izan da gonbidatua. Amaia Sasiainek zuzenduta, 9 kantu

kantatuko dituzte hernaniarrek: *Ave Maria, O bone Jesu, Tebe Poem, Aita Gurea, Laudatepueri dominun, Belengo artzaia, Elurra mara-mara, Nöel Nöel, eta Olentzero*. Alberto Agirre koruak, berriz, honako errepertorio hau ekarri-

ko du Hernanira: *Nun dezu Amandrea, Parvulus, Adeste Fideles, Gauerdian, Pozkarioz kanta zagun, Niño lindo, Oi Betlehem, Ator Ator, eta Gaur hemeretzi mende*. Joxean Pascual arituko da zuzendari. Kontzertua 20:00tan. □

### ■ PELOTA - GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Hernaniarrak txapeldun eta txapeldunorde

■ Jon Ezeiza eta Izadi Grajal gelditu dira txapeldun kadeteetan; Unai Ezeiza- eta Aitor Gorrotxategi, berriz, txapeldunorde gelditu dira jubenetan.



Hernaniko pelotari, delegatu eta entrenatzaileak sariekin.

HERNANIKO pelotariak berriz ere beren maila erakutsi dute. Gipuzkoako txapelketan kadeteetan irabazi eta jubenetan bigarren gelditu dira. Kadeteetan, Jon Ezeiza eta Izadi Grajalek 22-20 irabazi zien Amezketako Zazpi Iturriko bikoteari. 80 minutuko partidu luze eta gogorra izan zen.

Jubenetan, ere hernaniarrek txapelketa latza egin eta finalera iristea lortu dute. Unai Ezeiza eta Aitor Gorrotxategi azken partiduan ez zuten lana borobiltzerik lortu eta bikote hernaniarrak 22-10 galdu zuen Azepeitarren kontra. □



Nabarralde antolatutako erakusketa da.

## 'Nafarroa osoaren historia irudietan' erakusketak bihar arte Biterin

NABARRALDE elkarteak antolatuta erakusketa dago osteguna bitartean Biteriko erakusketa aretoan. Bertan Nafarroarekin lotutako irudiak ikusi daitezke. Batetik mapak daude jarrita, aurreneko mendetik hasi eta gaur egundaino European sortu eta desagertu diren estatuak azaltzen dira. Bertan ikusi daiteke Nafarroa

Estatuaren bilakaera eta desagertzea. Nafarroarekin zer ikusia duten armari eta sinboloak ere jarri dituzte.

Nabarralde elkarteak kale-ratu dituen liburuak ere bertan daude eta elkarteko sustatzailer egiteko aukera ere badago.

Erakusketa arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara dago ikusteko aukera. □

### ■ PLATER TIROA

## San Silvestreko txapelketa ostiralean

TXANTXANGORRI elkarteak antolatuta San Silvestreko tiro txapelketa izango da ostiralean. Sozioek eman dezakete izena eta 10 euro ordaindu behar dira. Izen ematea egunean bertan egin behar da arratsaldeko 15:00etatik 16:00etara. □

### ■ FUTBOLA - LABAIEN MEMORIALA

## Gaur erabakiko da txapelduna nor den

LABAIEN Memorialaren 33garren edizioa jokatzeko ari dira Zubipen eta Hernani, Añorga, Lengokoak eta Real Sociadak taldeak ari dira lehian. Bihar 15:30etan 3 eta 4garren postuak erabakiko dira eta 17:30etan finala. □

### ESKERTZA

## Josefa Arbe Garro

Abenduaren 15ean hil zen 85 urte zituela  
- Goian Bego-

Josefaren senitartekoen eskerrak ematen dizkizuegu samin-agurra bidali zenuenei eta baita bere hiletara eta ehorzketara etorri zineten guztioi ere.

GUZTIAGATIK ESKERRIK ASKO



Hernanin, 2.004ko abenduaren 29an


### IRAGARKI MERKEAK

Emakume bat behar dugu matrimonio bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu: 943 552665

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Emakume batek pisua behar du alokairuan Hernanin. 690 39 45 01

HORTZ KLINIKA  
- Oiarbide - Otxoa -



Orain helbide berrian aurkituko gaituzu:  
ORKOLAGA 3 - 5 behea - Tel.: 943 55 76 53



OKINDEGIA • JANARIDENDA

Zure eguneroko beharrei erantzuteko, hemen gaude.

Kale Nagusia 19  
Tel.: 943 55 23 98  
HERNANI

2005 Egutegia  
salgai

2 euro

Kronika, Dobera, Sebas, Iruretagoiena, Leokadisti, Plaza Berri, Zinko-enea, Konde, Dorronsoro, Bikain, eta Antziola okindegian.

HERNANIKO  
kronika

